



TOLOSAKO  
UDALA

## GOBERNU BATZARRA

2020.01.14

**Alkatea:**

**Olatz Peon Ormazabal**

**Bertaratutako zinegotziak:**

**Nerea Letamendia Beloso**

**Begoña Tolosa Mendia**

**Xabier Balerdi Tolosa**

**Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria**

**Ez da bertaratu:**

**Patxi Amantegi Zubiria**

**Idazkaria:**

**Begoña Garmendia Vazquez**

**Jarduneko Kontuhartzailea:**

**Paulino Alonso Eraso**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeiko urtarrilaren hamalauan, 11:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. 2019ko abenduaren 17ko bilkurako akta onartzea.

2. Onartzea Amarotz auzo elkartearen eskaera, eta bide ematea Tolosako Amarotz auzoan botikina onartzeko prozedurari.

3. Ondorengo dekretuen berri ematea:

2019/2100 dekretua: 2019/59 eta 2019/60 faktura zerrendak.

2019/2149 dekretua: 2019/61, 2019/62 eta 2019/63 faktura zerrendak

4. Dekretu hauen berri ematea: 2019ko abenduaren 9tik abenduaren 27ra (dk2019/2044-2019/2.151).

### **1. 2019KO ABENDUAREN 17KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2019ko abenduaren 17an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.



TOLOSAKO  
UDALA

## **2. ONARTZEA AMAROTZ AUZO ELKARTEAREN ESKAERA, ETA BIDE EMATEA TOLOSAKO AMAROTZ AUZOAN BOTIKINA ONARTZEKO PROZEDURARI.**

### **AURREKARIAK**

2019ko urriaren 2an, eskaera erregistratu zuen Amarotz auzo elkarteak Tolosako Udalari eskatzeko Amarotz auzoan botikina ezartzeko beharrezko diren tramiteak egin zitzala.

500/1995 Dekretuak, azaroaren 28koak, ezartzen ditu botikinak jardunean jartzeko baimen, baldintza eta jardunbiderako erregimena.

Horren harira, **2019ZZZZ0031 espedientea** osatu da.

Bertan jasotzen denez, **gizarte zerbitzuen eta osasunaren** ikuspuntutik, Saileko arduradunak dioenez, botikina auzotarren interesekoa da orokorrean, baina bereziki bertan bizi diren adineko bizilagunena, auzoan botikina mantentzeak zuzeneko eragina duelako beren autonomian, osasunean eta mendekotasunaren eta isolamenduaren prebentzioan. Honako onura zuzenak eragin ditzake:

- Adineko jendearen bizi kalitatea mantentzea.
- Oinarri-oinarrizko beharretara bere kabuz iritsi ahal izatea.
- Etxetik ateratzeko motibazioa sustatzea, eta, horrekin batera, harreman pertsonalak, laguntza sareak eta parte-hartze aktiboa indartzea.

Gauzak horrela, proposatzen da pausoak ematea, Amarotz auzo elkarteak botikina dela-eta egindako eskaera bideratzeko, beti ere, betetzen badira azaroaren 28ko 500/195 Dekretuak 8. artikuluan jasotzen dituen baldintzak.

Era berean, **Hirigintza Sailean**, udal arkitekto teknikoak egin du txostena azaroaren 28ko 500/1995 Dekretuak jasotzen dituen baldintzen inguruko informazioarekin, eta ondokoa jasotzen du:

#### **Botikinek bete beharreko baldintza teknikoak eta osasun arlokoak:**

1.- Botikina dagoen lokalak 12 metro karratuko azalera erabilgarria eduki beharko du gutxienez, eta erabiltzaileentzako aldeak eta biltegirakoak bereizita egon beharko dute.

2.- Erabiltzaileentzako aldeak zuzeneko sarbide librea izango du kaletik.

3.- Neurri bereziak eskatzen dituzten sendagai eta osasun-gaiak zaindu eta mantentzeko behar diren elementuez hornituta egon beharko dute botikinek.

4.- Botikinaren fatxadan errotulu bat jarri beharko da, "Botiquín" hitza, edo euskaraz "Botikina" hitza duena.

5.- Sarrerako atearen alboan, botikinaren ardura duen botikariaren izena jarri beharko da, bai eta erantsita dagoeneko botikaren helbidea ere.



TOLOSAKO  
UDALA

### Botikina jartzeko egokitasuna zehazteko jardunbidea.

8. atala.- Urruntasuna edo komunikatzeko zailtasunak dauden kasuetan aurkeztu beharreko agiriak:

Urruntasuna edo komunikatzeko zailtasunagatik, botikina auzoren batean jartzea egokia den erabaki nahi bada, eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Udalaren edo toki erakundearen aldeko akordioa, botikina jartzeko eskabidearen egokitasunari buruzkoa.

b) Udalak edo toki erakundeak egindako egiaztagiria, aipatzen den auzoa udalerritik berezita dagoen gune edo auzoa dela ziurtatzeko.

Plan Orokorrean arabera, Amarotz auzoa "20. Amarotz" gunean dago. Bere mugak dira: Iparraldetik A-1 autobiarekin; Ekialdetik San Blas auzoaren landa lurrekin; Hegoaldetik, Araxes paper-fabrikako lurrekin eta Mendebaldetik, Nafarroako errepide zaharra eta Usabal industriagunearekin.

Bere kokapenarengatik, esan daiteke Tolosatik urrun eta berezita gelditzen den auzoa dela.

c) Teknikari agintedunak egindako planoak, auzoaren mugak zehaztuta direla.

Erantsitako planoan adierazten dira.

d) Eskaria egin duen udalaren agiria, aipatzen den auzoan botikina jartzeko lokala duela jasotzen duena. Lokalak dituen ezaugarriak eta ekipamenduak zehaztu beharko dira eta botikariari botikina erabiltzailea zein baldintzatan utziko liokeen jaso beharko da.

Tolosako Amarotz auzoko 9 zenbakia duen eraikinaren behe solairuan badago gutxienez lokal bat botikina jartzeko aukera ematen duena. Lokala Lourdes Azpiroz botikariarena da eta egun botika bat dago bertan, laster Larramendi kalera 6 – behe solairura lekualdatuko dena.

Lokalaren ezaugarriak dira:

- 47 m<sup>2</sup>-ko azalera.
- Erabiltzaileentzako aldea eta biltegirakoa berezita daude.
- Kaletik zuzeneko sarbidea du.

Lokalak azaroaren 28ko 500/1995 Dekretuko 4. artikuluko baldintza teknikoak betetzen ditu (lokaleko planoak eransten dira).

Botikina martxan jartzeko baimena emango balitz, Udalak ondorengo baldintzak eskatuko lizkioke titularrari:



TOLOSAKO  
UDALA

1. Jardueraren aurretzako komunikazioaren inprimakia aurkeztu beharko da, jarduera proiektuarekin batera, eta inprimakian aipatzen diren gainontzeko agiriekin batera.
2. Lokalak neurri bereziak eskatzen dituzten sendagai eta osasun-gaiak zaindu eta mantentzeko behar diren elementuez hornituta egon beharko du.
3. Lokalak ondorengo araudiko baldintzak bete beharko ditu:
  - Urbanizazio, Eraikuntza, Paisaia eta Natura Babesteko Udal Ordenantzen 43. artikulua.
  - 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, irisgarritasunari buruzkoa, eta apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua, irisgarritasunari buruzko arau teknikoena.
  - 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Eraikingintzako Kode Teknikoa eta bere Oinarrizko Dokumentuak onartzen dituena.
4. Araudia betetzeko obrak egin beharko balira, aurretik obra baimena eskatu beharko litzateke.

e) Udalaren edo toki-erakundearen egiaztagiria, ziurtatzen duena eskaria egiten den eguneko erroldan auzo horretan gutxienez 800 lagun daudela erroldatuta.

(Idazkariaren ziurtagiria eranstean da).

f) Egiaztapena, gertuen dagoen botikara heltzeko, automobilerik eta trafikoko arauak betez, batez beste 10 minutu baino gehiago behar direla, auzoan hurbilen dagoen etxebizitzatik kontatuta denbora.

Tolosako Udaltzaingoko trafikoko koordinatzaileak azaroaren 13an egindako txostenaren arabera, ez da baldintza hau betetzen. Dena den, ez dauka zentzu handirik automobilerik egindako denbora erreferentzia bezala hartzea, mugikortasun planak mugikortasun motordunaren beharra murriztea aurreikusten duenean. Gainera, kontuan izanda gaur egun Amaroitz auzoan bertan dagoela mediku-kontsulta, zentzua dauka botikin zerbitzua ere auzoan bertan egotea, auzotarrek botika erraz eta azkar eskuratu ahal izateko.

Nahiz eta f) ataleko baldintza ez bete, esan behar da nahikoa arrazoi badaudela Amaroitz urruntasuna eta komunikatzeko zailtasunak dauden auzoa dela esateko, adibidez:

- A-1 Autobiaren eraginez, erdigunetik urrun geratzen den auzoa da.
- Mendi magalean dago, aldapatsua da eta irisgarritasun arazoak ditu.
- Gertuen dagoen farmaziara (Martin J. Iraola 10) oinez iristeko, gutxienez 15 minutu behar dira eta dagoen oinezkoen ibilbidea aldapatsua eta arriskutsua da (zati batzuk bizikleta-bidearekin partekatzen dira eta trafikoko handia jasaten duten errepideak gurutzatu behar dira).
- Amaroitzko biztanleriaren % 28k 65 urtetik gora ditu (EUSTATen datuen arabera). Horietako askok ez dute autorik edo/eta gidatzeko baimenik, mugitzeko arazoak eta menpekotasunak dituzte.

Aurrekoa ikusirik, proposatzen da Amaroitz auzo urruntasuna edo komunikatzeko zailtasunak dauden kasua kontsideratzea, auzoan botikina jarri ahal izateko, eta Udalak



TOLOSAKO  
UDALA

dagokion tokian botikina jartzeko eskaera egin dezala, horretarako behar diren agiriak aurkeztuz.

Horregatik guztiagatik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea Amarotz Auzo elkartearen eskaera, eta bide ematea Tolosako Amarotz Auzoan botikina onartzeko prozedurari.

**BIGARRENA.-** Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari proposatzea espediente hau aztertu dezala eta erabaki dezala Amarotz Auzo Elkartearen botikina jartzeko egokitasunaren inguruan.

**HIRUGARRENA.-** Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun, Aseguramendu eta Kontratatorako Zuzendaritzari bidaltzea espedientea.

**LAUGARRENA.-** Honen berri ematea Amarotz auzo elkarteari eta Gizarte Zerbitzuetako Sailari.

### **3. ONDORENGO DEKRETIEN BERRI EMATEA: 2019/2100 DEKRETUA: 2019/59 ETA 2019/60 FAKTURA ZERRENDAK.**

Idazkariak 2019/2100 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

#### **ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

**Zk.: 2019/2100**

**BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak**, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.



TOLOSAKO  
UDALA

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2019ko honako faktura-zerrenda hauek:

59 zenbakia duena, 579.546,01 eurokoa.

60 zenbakia duena, 145 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak ondorengo hau

#### **EBAZTEN DU:**

**LEHENIK.-** Onartzea ondorengo faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

59 zenbakia duena, 579.546,01 eurokoa

60 zenbakia duena, 145 eurokoa.

**BIGARREN.-** Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Tolosan, 2019ko abenduaren 18an

Zinegotzi delegatua

Nire aurrean,  
idazkaria

Begoña Tolosa Mendia

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu da.



TOLOSAKO  
UDALA

## **2019/2149 DEKRETUA: 2019/61, 2019/62 ETA 2019/63 FAKTURA ZERRENDAK**

Idazkariak 2019/2149 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

### **ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA**

**Zk.: 2019/2149**

**BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak**, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2019ko honako faktura-zerrenda hauek:

61. zenbakia duena, 104.506,56 eurokoa.

62. zenbakia duena, 8.373,35 eurokoa.

63. zenbakia duena, 137.652,60 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak ondorengo hau

### **EBAZTEN DU:**

**LEHENIK.-** Onartzea ondorengo faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

61. zenbakia duena, 104.506,56 eurokoa.

62. zenbakia duena, 8.373,35 eurokoa.

63. zenbakia duena, 137.652,60 eurokoa.

**BIGARREN.-** Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.



TOLOSAKO  
UDALA

Tolosan, 2019ko abenduaren 30ean

*Zinegotzi delegatua*

*Begoña Tolosa Mendia*

*Nire aurrean,  
jarduneko idazkaria*

*Karmele Contreras Goikoetxea*

Batzarkideak jakinaren gainean geratu da.

#### **4. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019KO ABENDUAREN 9TIK ABENDUAREN 27RA (DK2019/2044-2019/2.151).**

Alkatetzak eta zinegotzi delegatuek 2019ko abenduaren 9tik 27ra bitartean (DK 2019/2044-2019/2151) egin dituzten dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei.

Honako hauek dira:

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
2044	2019	09/12/2019	PERTSONALA	P.A.E. (IKASTAROA)
2045	2019	09/12/2019	HIRIGINTZA	ALDABA AUZOA 6 ERAIKINEKO LEHEN ERABILERA KO BAIMENA UKATZEA
2046	2019	09/12/2019	PERTSONALA	M.L.A (ARKITEKTO TEKNIKO A)
2047	2019	10/12/2019	IDAZKARITZA	TOLOSA KO UDALAK V. P. A. PROKURADOREA KONTRATATZEA, AZKONARRA, S.L. (B-75216093) ENPRESAK DONOSTIA KO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN 2. ZENBAKIKO EPAITEGIAN, 580/2019 PROZEDURA ARRUNTAN, JARRITAKO AUZIERREKURTZOARI ERANTZUNA EMATEKO
2048	2019	10/12/2019	PERTSONALA	HURRENGO URTERAKO OPORRAK (BAIMENA)
2049	2019	10/12/2019	IDAZKARITZA	TOLOSA KO SAN FRANTZISKO IBILTOKIKO 39-41 ZENBAKIETAKO URBANIZAZIO-OBRAK KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEA ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA
2050	2019	10/12/2019	IDAZKARITZA	KNOSYS PROGRAMAREN LIZENTZIA EROSTEA
2051	2019	11/12/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	CASER RESIDENCIAL SAU - ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA: IRAILEKO FAKTURA ONARTU.





ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
2052	2019	11/12/2019	PERTSONALA	A. O. A. ((LAN UTZIALDI ESKAERA)
2053	2019	11/12/2019	ENPLEGUA	KONTSUMITZAILEAREN BULEGOA KUDETZEKO URTEKO EKARPENA TOLOSALDEA GARATZENI
2054	2019	11/12/2019	EUSKERA	ATARIARI 2018KO DIRULAGUNTZAREN 2. ZATIA ORDAINTZEA
2055	2019	11/12/2019	HIRIGINTZA	ANULATUA
2056	2019	11/12/2019	HIRIGINTZA	BEDAIKO ARTUBI AUZO ELKARTEARI EKINTZA BURUTZEKO DIRULAGUNTZA ONARTZEA
2057	2019	11/12/2019	IDAZKARITZA	SAN FRANTZISKO 8KO JABEKIDEEN KUOTAK ORDAINTZEA
2058	2019	11/12/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	M.M.A.I BALIOANITZEKO ETXEBIZITZAKO KONTRATUA LUTZATZEA
2059	2019	11/12/2019	INFORMATIKA	HIRIGINTZAKO EKIPO TEKNIKOEN EROSKETA
2060	2019	11/12/2019	KONTUHARTZAILITZA	ONARTZEA 57 ETA 58 FAKTURA-ZERRENDAKO FAKTURA GUZTIEN ETA BAKOITZAREN GASTUA ETA ORDAIN DITZATELA AGINTZEA.
2061	2019	11/12/2019	IDAZKARITZA	ARABA 5EKO JABEKIDEEN KUOTAK ORDAINTZEA
2062	2019	12/12/2019	EUSKERA	ATARIARKEIN 2019KO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA ETA LEHENENGO ORDAINKETA EGITEA.
2063	2019	12/12/2019	HIRIGINTZA	AKATSAK ZUZENTZEKO ERREKERIMENDUA NAFARROA ETORBIDEA 7 BEHEA
2064	2019	12/12/2019	IDAZKARITZA	TOLOSAKO LEIDOR ZINEMAN EGITEN DIREN JARDUERA SOZIO-KULTURALAK ANTOLATZEKO ZERBITZU-KONTRATUAREN ESPEDIENTEA ONARTZEA ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.
2065	2019	12/12/2019	UDALZAINGOA	VADO BATEN BAJA ESKAERA ONARTZEA
2066	2019	12/12/2019	HIRIGINTZA	ERREKERIMENDUA AKATSAK ZUZENDU ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO ORIA KALEA 12 BEHEAN
2067	2019	12/12/2019	HIRIGINTZA	APEZETXEA SLREN AURREKONTUA ONARTU



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
2068	2019	12/12/2019	HIRIGINTZA	SAN ESTEBAN 11AN OBRA EGITEKO BAIMENA FATXADA ETA TEILATUA EGITEKO
2069	2019	12/12/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	J.M.LERI BALIOANITZEKO ETXEBIZITZAREN KONTRATUA LUZATZEA
2070	2019	13/12/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	GLLETAKO HAINBAT ORDAINKETA EGITEA
2071	2019	13/12/2019	KULTURA	O.O.E. IKASLEAREN BAJA MUSIKA ESKOLAN
2072	2019	13/12/2019	KULTURA	E.S.S. IKASLEAREN BAJA MUSIKA ESKOLAN
2073	2019	13/12/2019	PERTSONALA	ABENDUKO APARTEKO PAGAREN ORDAINKETAREN GASTUA ONARTZEA
2074	2019	13/12/2019	HIRIGINTZA	ESKOLAPIOETAKO LORATEGIAK 3 BEHEAN ESTETIKA ZENTROA ILEAPAINDEGIAREKIN JARTZEKO JARDUERA
2075	2019	13/12/2019	KONTUHARTZAILAZIA	IBILGAILUEN BEHIN BETIKO BAJEN ZIRKULAZIO ZERGA. DIRUITZULKETAK. ESP. 2019TMIZ0007
2076	2019	13/12/2019	HIRIGINTZA	J. A. B.RI HERRI BIDEAK ERABILTZEAGATIK JARRITAKO FIDANTZA BUELTATZEA
2077	2019	16/12/2019	AZOKAK	FLOW DISEÑO, S.L RI FIDANTZA ITZULTZEA
2078	2019	16/12/2019	EUSKERA	AITZOL EUSKALTEGIKO IKASLEEI DORULAGUNTZA ONARTZEA
2079	2019	16/12/2019	HIRIGINTZA	RONDILLA KALEA 21 BEHEKO "SUGAR" TABERNAKO SOINUAK DIRELA ETA ERAIKIN BEREKO 1.SOLAIRUKO ETXEBIZITZAN SOINU NEURKETA EGITEKO AGINDUA UDALTZAINGOARI
2080	2019	16/12/2019	HIRIGINTZA	KORREO KALEA 19-2.SOLAIRUKO ETXEBIZITZA ERABERRITZEKO OBRA BAIMENENKO DISTRIBUZIO BERRIA ONARTZEA BALDINTZEKIN
2081	2019	16/12/2019	PERTSONALA	E.G.L. (HARRERAGILE LANAK)
2082	2019	16/12/2019	AZOKAK	GABONETAKO AZOKA BEREZIA. AURREKONTUA ETA POSTUEN BANAKETA ONARTZEA
2083	2019	17/12/2019	HIRIGINTZA	KALE NAGUSIA 26KO JABEKIDEEI AZAROAREN 11KO 2019/1865 ZK.DUN DEKRETU BIDEZ EMANDAKO OBRA BAIMENENKO BALDINTZA BETETZAT JOZEA ETA ERAGINKORTZAT JOTZEA DEKRETU BEREAN EMANDAKO BAIMENA



TOLOSAKO  
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
2084	2019	17/12/2019	IDAZKARITZA	TOLOSAKO SAN FRANTZISKO IBILTOKIKO 39-41 ZENBAKIETAKO URBANIZAZIO OBREN PLEGU ADMINISTRATIBOEN ALDAKETA
2085	2019	17/12/2019	IDAZKARITZA	MONTETXEA 1A-BEHEA D ETXEBIZITZA TASATUAREN SALMENTARAKO GEHIENENKO PREZIOA EMATEA
2086	2019	17/12/2019	IDAZKARITZA	UZTURRE 17-2D ETXEBIZITZA TASATUAREN SALMENTARAKO GEHIENENKO PREZIOA EMATEA
2087	2019	17/12/2019	UDALZAINGOA	AUTO ABANDONATUEN DEUSEZTATZEA
2088	2019	17/12/2019	AZOKAK	TOLOSA&CO-RI BAIMENA EMATEA GABONETAKO KANPAINAN EGIN NAHI DITUZTENAK BURUTZEKO
2089	2019	17/12/2019	KULTURA	TOLOSAKO MUSIKA BANDAREN 2020KO EGUTEGIA ONARTZEA
2090	2019	17/12/2019	IDAZKARITZA	MUSIKA ESKOLAN FUNTZIO ANITZEKO EKIPOA HORNITZEKO ETA MANTENTZEKO KONTRATUA
2091	2019	17/12/2019	KONTUHARTZAILLETZA	17/2019 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA
2092	2019	18/12/2019	HIRIGINTZA	GUDARI 11KO 1. ESKUBIKO ETXEA ERBERRITZEA BARNE-BANAKETAREKIN EGITEKO LIZENTZIA EMATEA
2093	2019	18/12/2019	FESTAK	IÑAUTERIETAKO KONPARTSEK PLATAFORMAK ERAIKI ETA GORDETZEKO FERIALEKUKO PARTZELEN ESLEIPENA EGITEA.
2094	2019	18/12/2019	PERTSONALA	AZAROKO GIZARTE SEGURANTZAREN KOSTUA ONARTZEA
2095	2019	18/12/2019	AZOKAK	BALEUKO S.LREN ESKAERA ONARTZEA GRABAKETA EGITEKO TOLOSAKO HILERRIAN, UR HANDITAN PROGRAMA
2096	2019	18/12/2019	KONTUHARTZAILLETZA	2017KO IAE FUNTSAREN EKARPENA.
2097	2019	18/12/2019	PERTSONALA	NOMBRAMIENTO ABOGADO (RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO J.A.T.)
2098	2019	18/12/2019	HIRIGINTZA	LASKORAIN 12KO JABEKIDEEI ESKAUTAKO LIZENTZIAREN ALDAKETA UKATZEA



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
2099	2019	18/12/2019	IDAZKARITZA	GOBERNU BATZARREAN UTZITAKO AHALMENAK ALKATETZAK BEREGANATZEA.
2100	2019	18/12/2019	KONTUHARTZAILITZA	59 ETA 60. FAKTURA-ZERRENDETAKO FAKTURA GUZTIEN ETA BAKOITZAREN GASTUA ETA ORDAIN DITZATELA AGINTZEA
2101	2019	18/12/2019	IDAZKARITZA	AGENDA 21 DINAMIZATZEKO AHOLKULARITZA TEKNIKOAREN KONTRATAZIO ESLEIPENA
2102	2019	19/12/2019	HIRIGINTZA	KANPOSANTUKO LURREN EGONKORTASUN AZTERKETA EGITEKO IKERLUR ENPREAREN AURREKONTUA ONARTU
2103	2019	19/12/2019	IDAZKARITZA	PLAZA BERRIKO 36 ZENBAKIA DUEN GARAJEA ESKUALDATZEA. I.L.G.
2104	2019	19/12/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	CASER RESIDENCIAL - ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA: URRIKO FAKTURA.
2105	2019	19/12/2019	HIRIGINTZA	ERREMENTARI 32 BEHEKO "TXINPARTA" ELKARTE GASTRONOMIKOA LEGEZTATZEKO BIGARRREN EPE LUZAPEN ESKAERA EZ ONARTZEA
2106	2019	20/12/2019	PERTSONALA	LAN ESKAINTZA 2019 (HAUNDITZEA ETA AKATS ZUZENKETA)
2107	2019	20/12/2019	IDAZKARITZA	2019ERRE0020 ESPEDIENTEAN ABOKATUA IZENDATZEA
2108	2019	20/12/2019	HIRIGINTZA	IBARRALDE KAEKO PROIEKTUAREN II. FASEA EGITO JARRITAKO BERMEA ITZULTZEA
2109	2019	20/12/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	OINARRIZKO PREMIEN, ZORPETZE ETA MANTENUAREN GLL EMATEA
2110	2019	20/12/2019	UDALTZAINGOA	SALAKETAREN ORDAINKETA BATEN ITZULKETA
2111	2019	20/12/2019	AZOKAK	BALDORBA ARDOKETA S.L.RI BAIMENA EMATEA FESTA EGITEKO ABENDUAREN 31N
2112	2019	20/12/2019	HIRIGINTZA	BIOTOPOEN LIBURUA DENDEN BITARTEZ SALMENTA EGITEA
2113	2019	20/12/2019	DIRU-BILKETA	1801 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA
2114	2019	20/12/2019	DIRU-BILKETA	1899 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA
2115	2019	20/12/2019	DIRU-BILKETA	5193 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
2116	2019	20/12/2019	DIRU-BILKETA	17487 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA
2117	2019	20/12/2019	DIRU-BILKETA	18971 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA
2118	2019	20/12/2019	DIRU-BILKETA	21546 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA
2119	2019	20/12/2019	DIRU-BILKETA	25396 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA
2120	2019	23/12/2019	EUSKERA	IKASLEEN DIRULAGUNTZAREN 2. TXANDA
2121	2019	23/12/2019		
2122	2019	23/12/2019	DIRU-BILKETA	21712 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAREN ITZULKETA
2123	2019	23/12/2019	PERTSONALA	J.P.K (%88 LANALDIA, GIZARTE SERBITZUAK ETA HIRIGINTZA)
2124	2019	23/12/2019	DIRU-BILKETA	12153 PREMIAMENDU ESPEDIENTEA: ZATIKAPENA
2125	2019	23/12/2019	DIRU-BILKETA	15549 PREMIAMENDU ESPEDIENTEA: BIRJAPEN ERREKURTSOAREN EBAZPENA
2126	2019	23/12/2019	DIRU-BILKETA	26354 PREMIAMENDU ESPEDIENTEA: ITZULKETA ETA KONPENTSAZIOA
2127	2019	23/12/2019	DIRU-BILKETA	26605 PREMIAMENDU ESPEDIENTEA: ITZULKETA
2128	2019	23/12/2019	DIRU-BILKETA	23918 PREMIAMENDU ESPEDIENTEA: ITZULKETA
2129	2019	23/12/2019	DIRU-BILKETA	22886 PREMIAMENDU ESPEDIENTEA: BIRJAPEN ERREKURTSOAREN EBAZPENA
2130	2019	23/12/2019	HIRIGINTZA	KALE NAGUSIA 28KO FATXADA NAGUSIKO BALKOIEIEN ORDEZKAPENA ETA FATXADAKO ZUTABEAN EGINDAKO LANAK LEGEZTATZEKO AGINDUA
2131	2019	23/12/2019	PERTSONALA	2020KO EUSKALTEGIKO ZUZENDARITZA
2132	2019	23/12/2019	HIRIGINTZA	ZERKAUSIA KALEA 6KO ERAIKINEKO TEILATUTIK TEILA KALERA ERORI DELA ETA EXEKUZIO AGINDUA
2133	2019	26/12/2019	HIRIGINTZA	LKSREN AURREKONTUA ONARTU. HIRI GARRAIO ZERBITZUAREN UDALEKOTZEAREN INGURUKO AZTERKETA JURIDIKO, SOZIAL ETA EKONOMIKOA



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
2134	2019	26/12/2019	HIRIGINTZA	RONDILLA KALEA 29KO FATXADAKO KONPONKETAK EGITEKO BAIMEN ESKAERAKO PROIEKTUAREN MOLDAKETA AURKEZTEKO ERREKERIMENDUA
2135	2019	26/12/2019	HIRIGINTZA	ERREMENTARI 3 ERAIKINEKO PATIOAK, TEILATUA ETA SOTOKO LEHEN EREMUKO ESKAILERAK KONPONTZEKO OBRA BAIMENA
2136	2019	26/12/2019	PERTSONALA	Z.O.O. (LAN MURRIZKETA 2020-01-01TIK AURRERA)
2137	2019	26/12/2019	IDAZKARITZA	2019ERRE0023 KALTE ERREKLAMAZIOA EZEZTEA
2138	2019	26/12/2019	HIRIGINTZA	ANDRE MARIA KALEA 16AN FATXADA KONPONTZEKO OBRA BAIMENA
2139	2019	26/12/2019	KIROLAK	TAK ARRAUN ELKARTEARI 2019-20 DENBORALDIKO DIRULAGUNTZA IZENDUNA EMATEA.
2140	2019	26/12/2019	PERTSONALA	J.A. G.L. (%12,5KO LAN MURRIZKETA)
2141	2019	26/12/2019	HIRIGINTZA	RONDILLA KALEA 21EKO FATXADAK KONPONTZEKO OBRA BAIMENA
2142	2019	26/12/2019	PERTSONALA	I.A.M. (SENTENCIA JUZGADO SOCIAL N°1 DONOSTIA)
2143	2019	26/12/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	S.S.M.RI BALIOANITZEKO ETXEBIZITZEN KONTRATUA LUZATZEA
2144	2019	26/12/2019	IDAZKARITZA	JARDUNEKO IDAZKARIAREN IZENDAPENA
2145	2019	26/12/2019	HIRIGINTZA	KORREO 62KO EIT TXOSTENEAN AGINDUTAKOA BETETZEKO EGIKARITZE AGINDUA
2146	2019	26/12/2019	IDAZKARITZA	2019ERRE0033 HASIERA
2147	2019	27/12/2019	UDALTZAINGOA	CEAR-EUSKADI REN ESKAERA ONARTZEA
2148	2019	27/12/2019	KONTUHARTZAILETA	ZERGABILKETAKO HAINBAT AGIRIEN ANULAZIO DEKRETOA.
2149	2019	27/12/2019	KONTUHARTZAILETA	61 ETA 62. FAKTURA-ZERRENDETA KO FAKTURA GUZTIEN ETA BAKOITZAREN GASTUA ETA ORDAIN DITZATELA AGINTZEA
2150	2019	27/12/2019	ENPLEGUA	BMASI STRATEGY, S.L. REN GASTUA ONARTZEA
2151	2019	27/12/2019	HIRIGINTZA	MONTESKUE AUZOKO AZTIÑA BASERRIAREN LEHEN ERABILERA BAIMENA



TOLOSAKO  
UDALA

Denak jakinaren gainean geratu dira.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:55ean.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**